

Guía

para la aplicación de

Plaguicidas



OSALAN

Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Guía para la aplicación de plaguicidas



OSALAN

Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales

Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Autores: José Manuel Bermejo Merino y Amparo Betegón Hernando

Ilustraciones: Nerea Bermejo Olaizola

Correctores: Equipos técnicos de los sindicatos ENHE y ENBA

Edición: 1ª abril de 2002

Tirada: 25.000 ejemplares

© OSALAN. Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales
Camino de la Dinamita, s/n - 48903 CRUCES BARAKALDO

Internet: www.euskadi.net

Impresión: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

Depósito legal: BI-1347-02

Presentación

En el complejo mundo laboral, la prevención de riesgos laborales se debe acometer por medio de distintas actividades, todas ellas encaminadas a velar por la salud y la seguridad individual y colectiva de los trabajadores.

La Guía que les presentamos pretende servir de herramienta útil a los trabajadores del sector primario que en sus puestos utilizan plaguicidas, para el conocimiento de los riesgos y la correcta utilización de estos productos, incidiendo en el riesgo que comporta el consumo del alcohol.

El documento se ha realizado con la intención de crear un texto de rigor científico y de fácil comprensión, de manera que se generalice su uso entre los trabajadores de nuestra Comunidad Autónoma.

Esta publicación es el fruto del trabajo desarrollado por técnicos de Osalan que han contado en su labor con la colaboración de representantes de los sindicatos EHNE y ENBA, y con apoyo técnico en las tareas de diseño gráfico. A todos ellos nuestro agradecimiento por el esfuerzo realizado.

Iñaki Galdós Ibañez de Opacua

Director General de OSALAN

Plaguicidas

Un plaguicida es una sustancia química, natural o de síntesis empleada para combatir una plaga, que ejerza algún tipo de perjuicio sobre la actividad productiva.

Se denomina **materia activa** a la parte del producto que ejerce la propia actividad plaguicida. El resto del producto o formulación son sustancias añadidas aditivos, colorantes, espesantes, etc., que sirven para obtener un producto de características idóneas con relación a un uso determinado.

Según la plaga que se quiera combatir se clasifican en:

- Insecticidas - insectos,
- Herbicidas - malas hierbas,
- Fungicidas - hongos,
- Acaricidas - ácaros,
- Rodenticidas - roedores, etc.

Según la forma de presentación pueden ser: cebos (plaguicida + atrayente), gránulos, microencapsulado, polvo, polvo mojable, aerosol, soluciones (polvo con disolvente líquido), etc.

Esta guía va dirigida exclusivamente para los agricultores que utilizan plaguicidas de uso fitosanitario.

Factores de riesgo de los plaguicidas

- La propia toxicidad de la materia activa.
- La concentración de la materia activa en el preparado plaguicida.
- El tiempo de exposición: número de horas al día a la que se está expuesto (desde que se abre el envase hasta que el operario se cambia de ropa y se ducha) y la periodicidad o frecuencia de uso.

El uso de plaguicidas conlleva un riesgo ya que pueden desarrollar efectos malignos indeseados en el organismo del agricultor y pueden causar intoxicaciones, aún en muy bajas concentraciones, por lo que se debe extremar el cuidado en los trabajos en los que se utilizan.

¿Quién está expuesto al riesgo?

- Los trabajadores que intervienen en la fabricación, envasado, almacenaje, transporte y venta del plaguicida.
- Los aplicadores.
- Los familiares de los aplicadores (por almacenarlos en su propia casa, p. ej.).
- La población en general, por posibles residuos, al no respetar los plazos de seguridad entre la aplicación y la recolección y/o venta del cultivo.
- También pueden verse afectados los animales y el medio ambiente.

¿Cómo entran en el organismo?

- A través de la piel.

Es la vía principal de entrada de los plaguicidas en el organismo.

También puede entrar por los ojos y por las heridas.

- Por vía pulmonar, por inhalación de partículas o aerosoles en la pulverización.

- Por la boca, por ingestión accidental o relacionada con comer, beber o fumar durante la utilización.



Sintomas de envenenamiento

Psiquiátricos: irritabilidad, pérdida de memoria, depresión, insomnio...

Sistema nervioso: dolores de cabeza, náuseas, vómitos, ataques, dolores en piernas y manos...

Ojos, oídos nariz y garganta: conjuntivitis, rinitis, dolor de garganta...

Corazón y cardiovascular: pulso lento, alteraciones del ritmo del corazón, dolores en el pecho, lesiones en el corazón.


Hígado: hepatitis química, baja tolerancia a los químicos y al alcohol (Muy peligroso beber alcohol utilizando plaguicidas)

Sangre e inmunidad: anemias, disminución de glóbulos blancos, problemas de coagulación, disminución de las defensas del cuerpo.

Músculos y huesos: calambres y contracciones musculares, parálisis...

Endocrino: elevación de azúcar en sangre, hipertiroidismo, disminución de las funciones hormonales...

Pulmonares: dificultad respiratoria, aumento de la secreción de moco, asma, lesiones pulmonares...



Digestivos: sed excesiva, náuseas, vómitos, calambres y dolor abdominal, diarreas, sangrado interno...

Urinario y reproductivo: orina frecuente, dolor y dificultad al orinar, abortos, malformaciones en el feto.

Piel: ardor y picazón, granos y eczemas

En caso de intoxicación

- Retirar a la persona de la zona contaminada
- Quitarle la ropa contaminada y **lavarle** la piel con agua y jabón; en caso de que afecte a los ojos lavar sólo con agua durante 15 minutos.
- Acudir al médico con la etiqueta del producto utilizado.
- No dejar sola a la persona intoxicada, y si tiene dificultad para respirar, tumbarla de lado y retirar secreciones y otros objetos que puedan obstruir el paso del aire.
- No administrarle nada para beber; la leche, el alcohol, purgantes, etc, pueden potenciar la toxicidad de algunos productos.

¡Cuidado!

***El alcohol puede aumentar
la toxidad de los plaguicidas***

CONSEJOS DE SEGURIDAD EN LA UTILIZACIÓN DE PLAGUICIDAS

Antes de nada, se debe estar en posesión del carnet de manipulador de productos fitosanitarios, expedido por el Departamento de Agricultura del Gobierno Vasco, para lo cual se debe superar el curso de capacitación homologado por dicho departamento.

En la elección de productos

- Identificar la plaga a combatir.
- Pensar si existen **soluciones alternativas**: Trampas, control biológico, parasitoides, depredadores (ácaros, insectos), etc. Usar plaguicidas si y sólo si son necesarios.
- Elegir el plaguicida de menor concentración de materia activa, válido para el problema a tratar.
- Comprar la cantidad necesaria para el tratamiento evitando así el almacenaje del producto sobrante.
- Evitar productos tóxicos (T) o muy tóxicos (T+).
- Leer la etiqueta del producto y cumplir lo que describe: forma de aplicación, dosis recomendadas etc.
- No admitir envases deteriorados o sin etiquetado.
- Pedir al vendedor, si es necesario, la ficha de seguridad del producto.
- En caso de duda, consultar a un técnico especializado.

Dura En el transporte

- Personas, animales o alimentos deben estar separados, por una barrera física, de los plaguicidas.
- Colocarlos de forma segura y estable, para evitar golpes, caídas, derrames de producto o roturas de envases; los envases deben ir completamente cerrados.

En el almacenamiento

- Nunca en la propia casa.
- Nunca junto a alimentos.
- Nunca se efectuarán trasvases de sustancias sobrantes a otro recipiente, y menos aún a botellas o envases de uso casero. Si sobra sustancia, se devolverá a un agente especializado para su eliminación o neutralización. Si no existen en la zona empresas dedicadas a este tratamiento, se devolverá el envase con la sustancia sobrante al proveedor o vendedor. No reutilizar los envases de plaguicidas para otros fines.
- Almacenar el producto en un **área específica**, fresca, seca y bien ventilada, dedicada sólo a ese fin. El local será de material no combustible, de paredes no porosas ni absorbentes, de fácil limpieza, protegido del calor y de la humedad, evitando sótanos húmedos o locales que puedan inundarse. Estarán dotados de ventilación, natural o forzada que tenga salida al exterior (nunca a patios interiores). Estarán equipados con equipo contra incendios, y la instalación eléctrica y su cuadro eléctrico cumplirán la normativa vigente.



En la preparación de la mezcla

- Antes de abrir el envase, colocarse y ajustarse el equipo de protección individual.
- Seguir las instrucciones de la etiqueta del producto.
- Realizar la mezcla en zonas bien ventiladas y lejos de cursos de agua.
- Utilizar todo el producto, enjuagar enérgicamente los envases y verter el contenido en el tanque pulverizador.
- Utilizar el equipo adecuado y limpiarlo después de acabar la preparación del caldo.
- Las gafas y guantes de protección son indispensables durante la preparación del caldo, pues el producto está aún concentrado y existe riesgo por salpicaduras.
- Antes de empezar el tratamiento cerciorarse del buen reglaje del pulverizador.



Durante el tratamiento

- Evitar días de calor o de viento.
- No comer, beber o fumar durante el tratamiento.
- En caso de que se obture la boquilla, no succionar. Cambiarla o limpiarla con un instrumento adecuado a tal fin.
- Mantener el equipo en condiciones; Gomas, boquillas, manómetros, etc. serán revisados y sustituidos si es necesario.
- Utilizar el equipo de protección adecuado.



Utilizar el equipo de protección adecuado

Después del tratamiento

- Los envases vacíos se inutilizarán y depositarán en contenedores para envases fitosanitarios, especialmente diseñados para tal fin. Los envases con producto sobrante se darán a una empresa autorizada para su eliminación o neutralización. Sólo si no existiera dicha empresa, se devolverán al proveedor.



- El caldo sobrante se diluirá y se pulverizará en una finca o sobre el cultivo ya tratado. Nunca tirar el sobrante en cursos de agua o sus proximidades.
- Se limpiará el equipo de aplicación.
- El aplicador se duchará. Se lavará aparte la ropa contaminada, no mezclando nunca con la ropa de casa. Se cambiará con ropa limpia. Si ha utilizado ropa de uso limitado se desecha, tirando el traje al contenedor para envases fitosanitarios para su posterior eliminación.
- Se deberá respetar el plazo de seguridad del producto; es decir, el tiempo de reentrada en el local tratado y el tiempo que debe transcurrir entre la aplicación y la recolección o venta del cultivo.

¿Qué equipo de protección se debe utilizar?

MANOS: Guantes impermeables, con marcado CE, de protección química, de caucho, nitrilo o neopreno. Se colocarán por debajo de la manga. No usar guantes de cuero absorbentes, sucios de grasa o de disolventes, que puedan facilitar la entrada del plaguicida en la piel. Se usarán desde el principio (apertura del envase) hasta el final del proceso.

CUERPO: Traje impermeable de protección química, con marcado CE. Si se usa buzo de trabajo, se usará en operaciones cortas, siempre que sea de algodón grueso, y se lavará después de cada uso. ¡Cada día se usará un buzo limpio! El cuello debe estar protegido. El pantalón se colocará por encima de las botas.



**Capuz con filtro incorporado,
apropiado para invernaderos**

NARIZ Y BOCA: El equipo mínimo necesario en una pulverización es una mascarilla certificada CE, tipo "P" de protección contra partículas, que proteja boca y nariz. En invernaderos será necesario mayor protección: máscara con filtros mixtos A/P contra partículas y vapores orgánicos; capuz o capucha con filtro incorporado y con ventilador a batería.

OJOS: Es conveniente protector facial tipo máscara que cubra toda la cara. El equipo mínimo necesario son las gafas de protección.

PIES: Botas impermeables lo más altas posibles. Colocarlas por dentro del pantalón.



Respirador de filtro mixto A1P1 ó A2P2 en trabajos al exterior



Pestizidak erabiltzeko **Gida**



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea



Erakunde autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Pestizidak

erabiltzeko

Gida



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea

Erakunde Autonomiaduna



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Pestizidak Gida

Erabiltzeko

Egileak: José Manuel Bermejo Merino eta Amparo Betegón Hernando

Irudiak: Nerea Bermejo Olaizola

Zuzentzaileak: Equipos técnicos de los sindicatos ENHE y ENBA

Argitalpena: 1ª abril de 2002

Ale kopurua: 25.000 ejemplares

OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Dinamitaren bidea, z/g - 48903 CRUCES BARAKALDO

Internet: www.euskadi.net

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

Legezko gordailua: BI-1347-02

Aurkezpena

Hain konplexua den lan-esparruan, hainbat jardueren bitartez laneko arriskuak prebenitzeari ekin behar zaio, horiek guztiak langileon norbanakoaren eta taldearen osasuna eta segurtasuna zaintzera bideratuak.

Aurkezten dizuegun Gidaliburuaren helburua, hain zuzen ere, lanean plagizidak darabiltzaten oinarrizko sektoreko langileen-tzako tresna erabilgarri izatea da, produktu horiek dakartzaten arriskuak zeintzuk diren eta berauek egokiro erabiltzen jakin dezaten, alkohola edateak dakarren arriskua nabarmenduz.

Zehaztasun zientifikodun eta ulertzeko erraza den testua sortu nahi izan dugu, gure Autonomia Erkidegoko langileek eskuarki erabili ahal dezaten.

Argitalpen hau Osalango teknikariek egindako lanaren fruitua dugu, zeregin horretan EHNE eta ENBA sindikatuetao ordezkarien laguntza eta diseinu grafikoa egiteko laguntza teknikoa izan dutenak. Horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu egin duten ahaleginagatik.

Iñaki Galdós Ibañez de Opacua

OSALANgo Zuzendari Nagusia

Pestizidak

Pestizidak ekoizpen-jarduera kaltetzen duten izurriei aurre egiteko substantzia kimiko natural edo sintetikoak dira.

Izurria hiltzen duen produktuaren zatiari **materia aktiboa** esaten zaio. Gainontzekoa substantzia gehigarriak dira, koloratzaileak, lodigarriak, etab., eta egoera jakin batean erabiltzeko produktu egokia osatzeko balio dute.

Aurre egin beharreko izurriaren arabera honela sailkatzen dira:

Intsektizidak - intsektuak

Herbizidak - belar gaiztoak

Fungizidak - onddoak

Akarizidak - akaroak

Errorentizidak - karraskariak, etab.

Produktuaren tankeraren arabera, berriz, amua (pestizida + erakargarria), pikorrak, mikrokapsulak, hautsa, hauts bustigarria, aerosola, disoluzioa (hautsa eta disolbatzaile likidoa) etab.

Gida hau pestizida fitosanitarioak erabiltzen dituzten nekazariari bakarrik zuzentzen zaie.

Pestiziden arrisku-faktoreak

- Materia aktiboaren berezko toxikotasuna.
- Materia aktiboak pestizidan duen kontzentrazioa.
- Esposizio-denbora: egunean arriskuan egondako orduak (ontzia zabaltzen denetik langileak arropa aldatu eta dutxa hartzen duenera arte) eta erabiltzeko maiztasuna.


Pestizidak erabiltzea arriskutsua da, nekazariaren organismoan ondorio txarrak ekarri eta toxikazioak sor baititzakete, kontzentrazio baxuko produktuak erabili arren. Horregatik, arreta handiz egin behar da lan pestizida erabiltzen denean.

Nork du toxikatzeko arriskua?

- Pestizida egiten, ontziratzen, biltzen, garraiatzen eta saltzen duten langileek.
- Pestizida erabiltzen dutenek.
- Erabiltzen dutenen senideek (etxean gordetzeagatik, esate baterako).
- Hondakinak direla-eta, biztanleriak orokorrean, pestizida erabiltzen denetik laborea biltzen edo saltzen denera arteko segurtasun-epea errespetatzen ez bada.
- Animaliak eta ingurumena ere kaltetu ditzake.

Nola sartzen dira organismoan?

- Larruazalaren bitartez. Pestizidak organismoan sartzeko bide nagusia da. Baita begietatik eta zaurietatik ere sar daitezke.



- Biriketarik, ziprintzean partikulak edo aerosolak inhalatzearen ondorioz.



- Ahotik, nahigabe irentsita, edo pestizida erabili bitartean jan, edan edo erretzean.



Toxikazio-sintomak

Psikiatrikoak: suminkortasuna, memoria galtzea, depresioa, loak hartu ezina...

Nerbio sisteman: buruko minak, goragaleak, okadak, atakeak, mina hanketan eta eskuetan...

Begi, belarri, sudur eta eztarrian: konjuntibitisa, errinitisa, eztarriko mina...

Bihotzean eta bihotz-hodietako sisteman:


pultsu motela, bihotzaren erritmoan aldaketak, mina bularrean, lesioak bihotzean.

Gibelean: hepatitis kimikoa; produktu kimikoak eta alkohola gaizki jasetea (oso arriskutsua da alkohola edatea pestizidak erabiltzen diren bitartean).

Odolean eta inmunitate-sisteman: anemiak, globulu zuriak gutxitzea, koagulazioan arazoak, gorputzean defentsak gutxitzea.

Giharretan eta hezurretan: karranpak eta uzkurdurak giharretan, paralisiak...

Sistema endokrinoan: odolean azukrearen kopurua igotzea, hipertiroidismoa, hormonon funtzioak gutxitzea...



Biriketan: arnasa hartzeko zailtasunak, mukien jarioa handitzea, asma, lesioak biriketan...

Digestio-aparatuan: gehiegizko egarria, goragaleak, okadak, karranpak eta mina abdomenean, beherakoak, barne odol-jarioa...

Gernu- eta ugal-aparatueta: pixa egiteko gogoa sarritan, pixa egitean mina eta zailtasuna, abortuak, fetuan malformazioak.

Larruazalean: erremina eta azkura, pikorrak eta ekzemak.

Toxikatuz gero

- Toxikatu den pertsona kutsatutako lekutik eraman.
- Kutsatutako arropa kendu eta larruazala urez eta xaboiez garbitu; begiei kalte egin badie, urez bakarrik garbitu 15 minutuz.
- Medikarengana joan eta erabilitako produktuaren etiketa eraman.
- Ez bakarrik utzi toxikatu den pertsona, eta, arnasa hartzeko zailtasunak baditu, etzanda jarri alde batera okerturik eta arnasa hartzea oztopatzen duten sekrezio eta objektuak kendu.
- Ez eman edateko deus; esneak, alkoholak, garbigarriek eta abarrek zenbait produkturen toxikotasuna indartu dezakete.

Kontuz!

***Alkoholak pestiziden
toxikotasuna indartu dezake***

PESTIZIDAK SEGURTASUNEZ ERABILTZEKO AHOLKUAK

Lehenik eta behin, produktu fitosanitarioak erabiltzeko baime-
na beharrezkoa da. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak
ematen du, sailak berak homologatutako trebakuntza ikastaroa
gainditu ondoren.

Produktua aukeratzeko

- Ikusi zein izurriri egin behar zaion aurre.
- Bestelako irtenbiderik ba ote dagoen aztertu: tranpak, kon-
trol biologikoa, parasitoideak, harrapariak (akaroak, intsek-
tuak) etab. Pestizidak behar-beharrezkoak badira bakarrik
erabili.
- Arazoari aurre egiteko nahikoa den **pestizida aukeratu**, horre-
tarako materia aktiboaren kontzentrazio baxuena duena.
- Tratamendurako beharrezko **kantitatea erosi**, gehiago ez,
sobratutakoa gorde behar ez izateko.
- **Produktu toxikoak (T) eta oso toxikoak (T+) saihestu**.
- Produktuaren etiketa irakurri eta esaten duena bete: erabil-
tzeko modua, gomendatutako dosiak etab.
- Ez onartu ontzi hondaturik edo etiketarik ez duen ontzirik.
- Beharrezkoa bada, produktuaren **segurtasun fitxa** eskatu
saltzaileari.
- Zalantzarik izatekotan, **tekniko espezializatu bati galdetu**.

Trat. **Garraiatzeko**

- Barrera fisiko batek bereizi behar ditu pertsona, animalia eta elikagaiak pestizidetatik.
- Modu seguru eta egonkorrean jarri, ez kolpatzeko, ez erortzeko, produktua ez isurtzeko eta ontziak ez apurtzeko; ontziak ongi itxi behar dira.

Gordetzeko

- Ez gorde etxean inolaz ere.
- Ez gorde elikagaien ondoan inolaz ere.
- Ez ontziz aldatu sobratu den produktua, are gutxiago etxean erabiltzeko botiletara edo ontzietara bota. Produktua sobratzen bada, leku espezializatu batera itzuli behar da deusezta edo neutraliza dezaten. Tratamendu hori egiten duen enpresarik ez badago inguruan, ontzia eta sobratutako produktua hornitzaile edo saltzaileari itzuli behar-ko zaizkio. Pestiziden ontziak ez erabili beste deuserako.
- Produktua berariaz prestatutako leku batean gorde, leku fresko, lehor eta ongi aireztatuan, eta leku hori horretarako bakarrik erabili. Biltegia ez da material erregarriz egina egongo, hormak ez dira porotsuak ezta xurgatzaileak ere izan behar, erraz garbitzeko modukoa izan behar du, berotasun eta hezetasunetik babestua egon behar du eta produktua ezin da soto hezeetan edo urpetu daitezkeen lekuetan gorde. Biltegiak aireztatze natural edo artifiziala eta kanpora ateratzeko irteera izan behar dute (irteera ezin da barne patioetarako izan). Biltegiak suteen aurkako ekipoa izan behar du eta bertako instalazio elektrikoak eta baita koadro elektrikoak ere indarrean dagoen araudia bete beharko dute.



Nahastea prestatzeko

- Ontzia zabaldu aurretik, babes-
teko ekipoa jantzi eta ongi lotu.
- Produktuaren etiketak dakar-
tzan instrukzioak jarraitu.
- Ongi aireztatutako lekuetan eta
ur bideetatik urrun prestatu
nahastea.
- Produktu osoa erabili, ontziak
ongi garbitu eta zipriztintze-
ko tangan sartu edukia.
- Ekipo egokia erabili eta produktua prestatu ondoren ongi gar-
bitu.
- Nahastea prestatu bitartean ezinbestekoa da babesteko
betaurreko eta eskularruak erabiltzea, produktua kontzentra-
tua baitago oraindik eta zipriztinekin kutsatzeko arriskua
dago.
- Tratamendua hasi aurretik zipriztingailua ongi funtzionatzen
duela baieztatu.



Tratamendua egin bitartean

- Beroa edo haizea dabilen egune-tan ez egin.
- Ez jan, ez edan eta ez erre tratamendua egin bitartean.
- Pita obturatzen bada, ez xurgatu. Aldatu edo tresna egoki batekin garbitu.
- Ekipoa behar bezala gorde; gomak, pitak, manometroak etab. ongi dauden ikusi eta beharrezkoa bada berriak hartu.
- Babesteko ekipo egokia erabili.



Betaurrekoak



Maskara



Babes kimikoa duen jantzia

Eskularruak



Botak prakaren azpitik

Babesteko ekipo egokia erabili

Tratamenduaren ondoren

- Hustutako ontziak ez dira berriz erabili behar, eta ontzi fitosanitarioak hartzeko edukiontzi berezietan utzi behar dira. Bukatu gabeko ontziak material horiek tratatzeko baimena duen enpresa batera eraman behar dira deusezta edo neutraliza ditzaten. Horrelako enpresarik ez badago hornitzaileari itzuli beharko zaizkio.



- Tratamendua egin ondoren sobratutako nahastea diluitu behar da eta tratatutako lursail edo laborearen gainean zipriztindu. Sobratutakoa ez da ur bideetan bota behar, ezta ur bideen inguruetan ere, inolaz ere ez.
- Tratamendua egiteko ekipoa garbitu.
- Tratamendua egin duen langileak dutxa hartu beharko du. Kutsatutako arropa bereizirik garbitu, etxeko arroparekin nahastu gabe. Arropa garbia jantzi. Erabilera gutxirako arropa erabili badu, arropa baztertu behar da eta ontzi fitosanitarioentzako edukiontzira bota.
- Produktuaren segurtasun-epea errespetatu behar da; hau da, tratatutako lekuan berriz sartzeko denbora eta produktua erabiltzen denetik laborea biltzen edo saltzen den arteko denbora.

Babesteko nolako ekipoa behar da?

ESKUAK: CE marka eta babes kimikoa duten eskularru iragazgaitzak, kautxuz, nitriloz edo neoprenoz eginak. Mahukaren azpitik jarri behar dira. Larruzko eskularru xurgatzailerik ez erabili, ezta koipez edo disolbatzailez zikindutakoak ere, pestizidari larruzalean sartzen laguntzen baitiote. Hasieratik (ontzia zabalteko momentutik) eta prozesua amaitu arte erabili behar dira.

GORPUTZA: Babes kimikoa eta CE marka dituen jantzi iragazgaitza. Lan-jantzia erabiltzen bada, lan laburretan erabili bakarrik, eta kotoi lodiaz egindakoa izan behar da; gainera, erabili ondoren, garbitu behar da beti. Egunero lan-jantzi garbia erabili! Lepoa babestu behar da. Praka boten gainetik jantzi behar da.



**Iragazkia duen txanoa,
negutegietan erabiltzeko egokia**

SUDURRA ETA AHOA: Pestizida botatzeko garaian, hau da beharrezkoa den gutxieneko ekipoa: CE ziurtagiria duen maskara, "P" motakoa, ahoa eta sudurra partikulen aurrean babesteko. Berotegietan babes handiagoa behar da: partikulen eta lurrin organikoen aurkako A/P iragazki mistoak dituen maskara; bateriaz funtzionatzen duen haizagailua eta iragazkia dituen txanoa (capuz).

BEGIAK: Aurpegi osoa estaltzen duen maskara babeslea erabiltzea komeni da. Gutxieneko ekipoa babes-betaurrekoak dira.

OINAK: Bota iragazgaitzak, ahalik eta altuenak. Praken barnetik jantzi.



A1P1 edo A2P2 iragazki mistoa duen arnagailua, kanpoko lanetan erabiltzeko